

Gaur egungo gizartean bakoitzaren denbora geroz eta preziatuagoa da. Gure denbora libreari balio handia ematen diogu eta askotan janaria prestatzeko denbora gutxi daukagu. Hori gutxi balitz gaur egungo gazteok Sukaldean ez gara trebeak baina etxeko janari goxoak atsegin ditugu. Askotan faltan botatzen ditugu gure amaren edo amonaren plater goxoak baina ez dugu haiek egiteko denbora hartzen. Horregatik gure ideia helburua arazo eta gabezia hauei konponbidea ematea da.

Gure ideia eguneroko otorduak modu azkar eta osasuntsu batean gure bezeroei eskeintzea da. Platerak gertuko etxeetan prestatuak izango dira modu tradizional batean guk eskatutako errezetak erabilia.

Gure ideia aurrera ateratzeko ezinbestekoa da **Kolaboratzaile Sare** sendo bat sortzea. Sare hau etxean dauden gizon eta emakumeek osatuko dute. Hauek diru extra baten truke gure bezeroek behar duten otordua prestatuko dute beraien etxeetako sukaldeetan. Herriko biztanleei diru bat eskuratzeko aukera emateaz gain guri kostuak murriztueraziko digute etxe partikularretako sukaldeetan sortuko bait ditugu gure otorduak.

Gure enpresaren harremana bezeroekin azkarra eta gertukoa izango da. Bestetik jende askok janariaren kalitateari geroz eta garrantzia gehiago ematen dio, gure enpresak janaria gertuko produktuekin egingo du eta bezeroak nahi duen moduan sukaldatua izango da.

Azkenik gure enpresak **gizarte erantzukizun** bat beteko du. Egoera zailak bizi dituzten pertsonen laguntzeko helburua ere izango dugu. Hauei otordu bat eta horrekin lotuta ere boluntarioritza sustatuz. Hori guztia finantziatzeko erakunde publikoei laguntza eskatuko diegu.